

- 3** ostirala
- 20:00etan.- **Sagardotegirako irteera.**
Izen-ematea Udal Euskaltegian.
- 22:15ean.- **Antzerki Garaia: "Ahuntza... edo nor den Silvia"**
Usurbe Antzokian.
- 5** igandea
- 08:00etan.- **Mendi irteera: Beasain-Ikaztegieta.**
Antolatzailea: Aizkorri Mendizale Elkartea.
- 15** asteazkena
- 17:30etik - 19:30era.- **DJ Ikastaroa, DJ Polarisen eskutik.**
Gaztegunean.
- 18** larunbata
- 17:30etik - 19:30era.- **Masaje ikastaroa.** Gaztegunean.
- 19** igandea
- 17:00etan.- **"Mekatzis Mariatxi" emanaldia Poxpolo eta Mokolo pailazoekin.**
Antzizar Kirolddegiko frontoian. Babeslea: AMPO.
- 22** asteazkena
- 17:30ean.- **Ipuin kontaketa: Kontu Kantoi taldearekin.**
Udal Bibliotekan.
- 26** igandea
- 08:00etan.- **Mendi irteera: Zumarraga-Gabiria-Beasain.**
Antolatzailea: Aizkorri Mendizale Elkartea.
- 27** astelehena
- 09:15etik - 11:15era.- **Lorazaintza ikastaroa.**
Udaletxeko Batzar Aretoan.
- 29** asteazkena
- 12:45ean.- **Antzerki Amateurra: "Auto". Txindoki-Alkartasuna**
Institutuko ikasleak antzeztuta.
Institutuko ikasleentzat eta Jubilatuentzat.
Usurbe Antzokian.
- 30** osteguna
- 11:00etan.- **Antzerki Amateurra: "Auto". Txindoki-Alkartasuna**
Institutuko ikasleak antzeztuta.
Beasaingo ikastetxeentzat. Usurbe Antzokian.
- 19:00etan.- **Antzerki Amateurra: "Auto". Txindoki-Alkartasuna**
Institutuko ikasleak antzeztuta.
Herriko guztientzat. Usurbe Antzokian.

ZINE KLUBA. Antolatzailea: Goieniz Zine-Kluba.

- 2** osteguna
- 21:00etan.- **"La edad de la ignorancia" filma.** Usurbe Antzokian.
- 16** osteguna
- 21:00etan.- **"El Muro- The Wall" (Pink Floyd) filma.** Usurbe Antzokian.
- 23** osteguna
- 21:00etan.- **"The soul of a man" filma.** Usurbe Antzokian.

Kultura informazio gehiago: www.beasain.net

IGARTZA JAUREGIKO BERRITZE LANAK, AURRERA



**"AHUNTZA...
EDO NOR DEN SILVIA?"**
APIRILAK 3
TRAGEDIA, DRAMA,
OHOLTZA GAINEAN, PUNTAKO
EUSKAL AKTOREEN ESKUTIK

ERAKUSKETAK

Apirilaren 5erarte. Mendiko X. Argazki Lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa.
Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.

Ordutegia:

Astelehenetik larunbatera/Lunes a sábado: 19:00 - 21:00.
Igande eta jaiegunetan/Domingos y festivos: 12:00 - 14:00 / 19:00 - 21:00.

Paper birziklatuan egina 3518-009

Beasain

egunez egun

BEASAINGO UDAL ALDIZKARIA 2009ko apirila 07



Beasaingo udala



Loinaz Txirrindulari Elkartea

Afizioari tokia eginez

4

TRÁFICO
El vial que une las plazas
Barrendain y Gipuzkoa será
bidireccional.

7

AISIA
Gaztegunean DJ eta
masaje tailerrak, Aste
Santuko oporretan.

8

KULTURA
HITZARMENAK
Udala eta herria elkarri
lagunduz.



Beasain iruditan...

Denborak ez du inor engainatzen. Urteak aurrera doazen heinean, gizonaren esku-hartzea areagotzen joan ohi da. Sasoi batean ezer ez zegoen tokia gaur urbanizatuta eta beteta ikus daiteke.



Makinak lanean ari dira Esteban Lasa eta Zazpiturrieta kaleak lotzen diren inguruan. Ez da ikuslerik ere falta obren nondik-norakoei erreparatzeko. Gaur egun, irudian agertzen den zonaldea etxez beteta dago eta zaila izaten da errepidea kotxeetatik aske ikustea. Baina uste dugu beti hortxe egon direla. Herriaren bilakaeraren isla da irudia.



Alkatearen txokoa...

Patxi Plazaola



Tokiko Agenda 21 en garapenean aurtun garraioa dugu aztergai. Gaurko ibilgailu andanak sortzen duen kutsadura kontrola ezina nola murriztu eta aldeberean herritarren mugikortasuna nola bermatu da korapiloa. Herriko ikastetxeetako ikasleak ere burubelarri ari dira mugikortasuna deritzon gai hau aztertzen. Zergatik ez oinez iritsi ikastetxera? Beharrezkoa al dugu kotxea hainbeste erabiltzea?, antzeko galderei erantzuten ari dira. Goierri mailan ere herriarteko mugikortasuna aztergai dugu udalok. Goiekiren bitartez. Herri inguruetan dauden In-

MUGIKORTASUNA

dustria guneetara nola iritsi, kotxez ala oinez? Zein dira bideratu beharreko neurriak autobusen eta trenen erabilera gehitzeko?

Gaurko ale honek gure herriak trafikoa abiatu izango dituen aldaketan berri ematen du. Anbulategi zaharreko biribilgunea irekitzeak aukera berriak eskaini ditu herriko trafikoa egokitzeko, ibilgaluen ibilbideak murrizteko eta ondorioz kutsadura gutxitzeko.

Jakin badakigu, herri barruan mugitzeko herriarrok egunero 5507 ibilbide egiten ditugu eta hauetatik 2.300 ibilbide, kilometro bat baino laburragoak izan ohi direla. Luza- rora hau jasanezina da. Zein da arazo hori bideratzeko neurri egokia? Hori da gakoa.

Irtenbideak ematerakoan, herrira datozenak ere kontuan izan dira. Horretarako, Gipuzkoa Plazako eta Bernedoeneako aparkalekuak eta sarbideak erabiltzea bultzatu nahi da.

Aparkalekuak aparkaleku, udaberria etorri zaigu eta horrekin batera natura esnatu da. Herriko lorategiak ere kolorez bete dira herri- tarren gozamenarako. Gureak taldeko Goroldi enpresako langileak egunero ikusten ditugu jo eta ke gure lorategiak ondo baino hobeto zaintzen. Ale honetan zilegia da beraien lana txalotzea.

En este número de la revista se tratan extensamente las modificaciones de tráfico como consecuencia de la apertura de la nueva rotonda en la zona del antiguo ambulatorio. Reducir los recorridos de los vehículos para disminuir las emisiones de CO2 a la atmósfera y evitar la circulación incontrolada por el centro del municipio son criterios que se han tenido en cuenta a la hora de proponer las modificaciones de tráfico.

Son 5507 recorridos que los beasaindarras hacemos en coche cada día dentro del municipio de los cuales 2.300 recorridos son de menos de un kilómetro. Si no se toman las medidas oportunas la situación del tráfico se convertirá en insostenible. ¿Cuáles son las medidas adecuadas? Es la pregunta del millón.

Con la primavera se despierta la naturaleza. Los jardines del municipio se visten de colores para disfrute de los beasaindarras. En este número podréis encontrar a los trabajadores de Goroldi, empresa del grupo Gureak, que con su esfuerzo y dedicación se dedican al mantenimiento de los jardines municipales. Bien merecen nuestro reconocimiento.

Acceso al mundo laboral a través del INEM y de la Cruz Roja



Adela
Herrero.
Alumna



Marianti
Tolosa.
Alumna



Garbiñe
Mujica.
Ikaslea



Maribi
Lopez.
Ikaslea

"La idea de participar en un curso de formación y empleo, la verdad es que me vino en un buen momento; pues estaba en paro y con ganas de hacer algo diferente. Más aún cuando es una oferta tan interesante, pues además de aprender una profesión, te da la posibilidad de insertarte en el mercado laboral como auxiliar-sociosanitario. En el curso anteriormente citado, además de las clases teóricas impartidas, hay un periodo de prácticas que realizaremos en diferentes centros de la comarca del Goierri, dándonos a conocer las diferentes prestaciones sociales. Por otra parte me supone un gran esfuerzo, puesto que alternar estudios, con dos niños, no es nada fácil; pero es cuestión de proponérselo y todo esfuerzo merece la pena".

"Estoy encantada con el taller de empleo de auxiliar socio-sanitario. Me parece una experiencia muy interesante, una oportunidad para aprender y un puente para acceder al mercado laboral sobre todo en esta época de crisis. Además hay que tener en cuenta que algunas participantes del taller somos mujeres mayores de 40 años, también hay mujeres inmigrantes y todas nosotros con muchas dificultades para acceder al mercado laboral. Cada vez las exigencias son mayores y se solicita gente más preparada y profesional para atender a la 3ª edad, por ello, me siento muy contenta con esta oportunidad de aprender y poner en práctica los conocimientos adquiridos. El taller es muy ameno y también práctico, para luego servir a la sociedad".

"Dependentzia egoeran dauden pertsonen kopurua geroz eta handiago denez, ezinbestekoa da etorkizunean sektorean lan egingo duten pertsonen formakuntza egokia. Gurutze Gorriak, INEMekin elkarlanean, urtebeteko ikastaroa antolatu du profesionalak formatzeko, teoria zein praktika mailan, pertsona nagusien zaintza eta arretarako. Lan hori guztia, lehen etxetik kanpo lanik egiten ez zuten emakumeek egiten zutena, oharkabean pasa da. Orain ikusi da, emakumea lan munduan sartu de- nean, pertsona helduak ingurune profesional batean artatzeko beharra, haien behar guztiei erantzunez maila guztietan".

"INEMetik eta Gurutze Gorritik enplegu tailerren garapena sustatzen da bizi dugun lan eta ekonomia krisiari aurre egiteko modu gisa. Formakuntza programa hauen bitartez, bidea errazten zaie lan munduan sartzeko zailtasun bereziak dituzten taldeei, adibidez, adina, sexua, formakuntza maila... Formakuntza kontratua egiten zaio ikasleagoari eta urtebetez, teoria eta praktika uztartzen dituen prestakuntza jasotzen du. Helburua ikasleak prestatzea da, gero lanpostu jakin batean eskatzen diren funtzioak eta betebeharrak modu egokian bete ditzaten. Enplegu tailerrean emango den espezialitatearen hautaketa sektore ezberdinen beharren arabera da. Beasaingo Gurutze Gorriak duen formakuntza ibilbidea tarteko, Henry Dunant Beasain enplegu tailerrak laguntzaile soziosanitarioaren espezialitatea eskaintzen du".

Beasaindar guztien esku dago

Editorea:
Beasaingo Udala

Lege Gordailua:
SS-1284-2008

Beasaindik kanpo bizi direnek aldizkaria jasotzeko:



943 02 80 50



@ udala@beasain.net

www.beasain.net

OHARRA


[Beasain]
egunez egun

Barrendain eta Gipuzkoa plazen arteko errepide zatia

Bi noranzkokoak izango da

El Ayuntamiento de Beasain lleva tiempo trabajando en la mejora de la movilidad del municipio ante el considerable e ininterrumpido aumento de vehículos. La rotonda de Zaldizurreta, no solo elimina uno de los puntos negros de Beasain, sino que conlleva una serie de cambios en el tráfico con el objetivo de aligerar la circulación en calles sobresaturadas y

buscar un equilibrio. Es lo que se pretende conseguir con reconvertir en bidireccional el tramo de carretera que se prolonga desde Barrendain plaza hasta Gipuzkoa plaza de modo que en muchos casos se evita el paso por Esteban Lasa, San Inazio y Oriamendi, desplazando el tráfico hacia el oeste de Beasain.



“Las calles que ahora están saturadas de vehículos serán mucho más tranquilas”

Hilario Urretabizkaia, Jefe de Policía Municipal.

¿Sabías que en los últimos cuatro años el número de vehículos ha crecido un 27% en Beasain?

En 2004 había 5.206 vehículos. En 2008, 7.146.

“En Bernedo hay 351 plazas de aparcamiento; en la Plaza Gipuzkoa, 251”.



Nolatan erabaki du Udalak bi noranzkokoak egi-
tea Barrendain eta Gipuzkoa plazen arteko
zatia?

Udalak trafiko diagnosi bat egin zuen 2004an hain-
bat alternatiba aztertzeko eta 2008an berrikuspen bat
egin da Zaldizurreta biribilgunea tarteko. Batzorde
bat ere osatu zen udalerriko mugikortasuna hobetu
ahal izateko soluziobideak mahai gainean jarri eta ez-
tabaidatzeko. Lan horren guztiaren ondorio da hartu
dugun erabakia. Zaldizurreta biribilgunea eraikite-
arekin herriko puntu beltz bat desagertzen da, oso
arriskutsua zena. Eta horrekin batera, trafikoa ondo ku-
deatzen eta bideratzen ahalegindu behar dugu.

Zer lortu nahi da neurri horrekin?

Gaur egun, Lazkao edo Donostiatik datozen ibilgai-
luak Beasainera sartzeko, Zaldizurretatik, sekulako
buelta eman behar dute eta ezinbestekoa zaie Este-
ban Lasa, San Inazio eta Oriamendi kaleak zeharka-
tzea. Beste modu horretara, ordea, Zaldizurretan
ezkererantz hartu ahal izango da Joan Iturralde kale-
rantz eta beraz, herrigunera sartu nahi ez dutenek ez
dute alferrik kilometrorik egin beharko. Beasaingo zo-
nalde berrietara zuzenean sartuko dira.

Horrek zenbait gunetan ekarriko duen arindua-
rekin...

Hori da. Trafikoaren orekatzeko ekarriko du. Gaur egun,
Beasainen zenbait gune gainezka daude kotzez. Este-
ban Lasa, San Inazio eta Oriamendi, esaterako. Eta
justu aldaketa honekin kale horiek sekulako arindua
hartuko dute trafiko aldetik. Lasaiagoak bihurtuko dira.
Pentsa, jende askok Donostia aldetik datorrela lgartza
aldera joan behar badu, herrigunetik ez pasatzeagatik,
N-1etik jarraitzen du, Castillo Hotelerara arte. Ohitura
hori jende askok du. Hemendik aurrera, agian Zaldi-
zurretatik sartu eta Barrendainerantz jarraituko dute.

Horrek derrigorrean aparkalekuak kentzea es-
katzen du, ezta?

Barrendain plazatik Gipuzkoa plazarako tarte horretan,
bai. Guztira, 87 aparkaleku galduko dira. Alegia, Zaldi-
zurreta kalean, 38; Joan Iturralde kalean 25, eta Tren-
bidean 24.

Eta?

Ez da egongo beste herrikerri harrigunetan bertan Bea-
sainek adina aparkaleku duenik. Bernedon 351 apar-
kaleku daude eta Gipuzkoa plazan 251. Bi gune
horietan badago nahikoa leku. Gainera, auto kopuru
handiagoa dago Beasaingo zonalde berrietan, herria-
ren erdi-erdian baino, nahiz eta eguneko mugimendua
gehiago nabaritu erdian.
Eta adibidez, Zaldizurreta kalean, Bideluze parean, za-
maketa lanetarako gune handi samar bat egokituko da
eta zamaletarako ordutegitik kanpo, autoak apar-
katu ahal izango dira.

Noiz ikusiko ditugu aldaketak? Badago datarik?
Zaldizurreta biribilguneak lanak amaitzearekin ba-
tera. Apirilaren amaierarako.

[Beasain]
egunez egun

Beasainek bikoiztu egingo du herriko berdegune eta lorategien zaintza

“Beasain txukun” leloari eutsiz, Udalak berdegune eta lorategiak hobeto zaintzeko dituen baliabideak areagotuko ditu.

Urte sasoi honetan, eta negu beltzetik irtetear garena, argitasuna somatzen da kaleetan. Batetik, gero eta indartsuago agertzen zaizkigulako zerutik eguzki izpiak eta bestetik, gure herriko lorategiak kolorez jantzi direlako. Lore usaina darie. Udaleko zerbitzueta arduraduna den Jose Inazio Aramendiren hitzetan, urtean bitan landatzen dira denboraldiko loreak, udaberrian eta udazkenean. Mitxoletak, nartisoak...

Beasainek 69.360 m² berdegune ditu, 61 gunetan banatuta. “Gune bakoitzak bere tratamendua du. Saiatzen gara belarrari ez gehiegi hazten uzten, baina mantenimendua hobetzeko asmoz, aurtan aurrekontua ia bikoiztu egin dugu. Beraz, adibidez, Iturraldeko parkean orain arte urtean zazpi alditan moztzen bazen belarra, aurtan 14 aldiz moztuko da eta Barrendaingo biribilgunean zortzi mozketa egingo baziren, hemendik aurrera 20 egingo dira”.

Alegia, orain arte urte amaieran moztutako eta txukundutako metro karratuak 448.000 metro karratutik gora izaten baziren, aurtan urte amaierarako 900.000tik gora gehituko dira. Udalak aurki aterako du lorategien zaintza lehiaketara. Azken urteetan, lan horretaz Gureak taldearen barruan dagoen Goroldi enpresa arduratu da. Beasainen sei lagunek egiten dute lan berdeguneen zaintzan eta aurrerantzean, Udalak baliabideak gehitzearekin, gehiagok egingo dute. Zerbitzua hobetzeko aurtengo aurrekontua 297.000 eurokoa da. Ia bikoiztu egin da. Horri lore aldaketak eta materiala gehitu behar zaizkio.

Violas, amapolas, pensamientos, miosotis y tulipanes

Beasain siempre le ha dado importancia a la jardinería. Ha sido pionero, por ejemplo, en introducir en sus jardines plantas hortícolas, algo que se venía haciendo desde mucho tiempo atrás en países como Francia.

Beasain ha sido puntero a la hora de modernizar la jardinería. Aquí todo era sota, caballo y rey. Era pobre en relación con el extranjero y ahora se está igualando más”, explica Jose Mari Arsuaga, de Goroldi, empresa que se encarga del mantenimiento de las zonas verdes en Beasain. Por ejemplo, “fue el primero en introducir plantas hortícolas en los jardines”. Intentan jugar con diferentes variedades, guiándose por el gusto, y evitando la repetición de las mismas especies y colores en los mismos sitios.

Este año han plantado flores de primura alta—hasta ahora había de primura baja—, berzas decorativas que también se podrían comer, amapolas, pensamientos, miosotis y tulipanes de un sinfín de colores. “Beasain siempre ha apostado por el color. Siempre ha habido”.

Tampoco faltan en el municipio arbolados de flor como cerezos. “Los cerezos que vemos aquí son japoneses. En Japón, en época de floración, cogen sus bocatas y su sake y se van a disfrutar del paisaje. Hacen fiesta”.



Jose Inazio Aramendi.

¿Sabías que...

Beasain tiene 69.360 m² de zona verde?

... tanto en primavera como en otoño se plantan flores de temporada?

... hay 656 árboles en todo el municipio?

... los restos de poda y el material orgánico se llevan a la planta de compostaje?

Gazteguneak, DJ eta masaje tailerrak antolatu ditu Aste Santuko oporretarako

Gazteguneak 12 eta 18 urte bitarteko gaztetxoentzat eskaintza erakargarria prestatu du datozen egunetarako.

Apirilak 4: 18:00etan, Gaztegunearen logoaren eta izenaren aurkezpena, txapa tailerra eta txokolatada.

Apirilak 15: Masaje tailerra.

Apirilak 18: DJ tailerra DJ Polarsen eskutik.

Maddalen Hernandez

Gaztegunea kudeatzen duen Puxtarri aisialdi taldeko arduraduna

“Guk konpromisoa eskatzen diegu gaztetxoei, parte hartzea”

Apirilean, pil-pilean jarriko duzue Gaztegunea, ezta hala?

Egitarau berezia antolatu dugu. Batetik, logoaren eta izenaren aurkezpenak egingo ditugu hilaren 4an. Arratsalde hori janzteko txokolatada eta jolasak egingo ditugu jarraian. Aste Santurako, beriz, DJ eta masaje tailerrak antolatu ditugu. Aurretik ere masaje tailerra eskaini izan dugu eta ondo atera zen. Positiboki baloratu genuen eta horregatik aukeratu dugu. DJ-arena, beriz, eskarietatik izan da. Gaztetxoei horrelakoak asko gustatzen zaizkie. Biek egun bateko iraupena izango dute eta zertzelada batzuk emango dituzte.

Sarri antolatzen al dituzue horrelako ekintza bereziak? Ez hainbeste. Jendetzaren eta dituzten inizatibien arabera antolatzen ditugu. Eguraldiak, esaterako, sekulako eragina du. Txarra egiten badu, jende asko etortzen da. Izan dira egunak 70 lagunekoak. Talde polita 20-25ekoa da.

Zer dute aisialdirako Gaztegunean?

Antolatzen ditugun ekintzez gain, txoko ezberdinak daude. Ordenagailuak dituzte, mahai-jokoak, ping-ponga, mahai-futbola, telebista eta musika gela, sofa kontu kontari egoteko...

Hiru urte daramatza Puxtarri taldeak Gaztegunea kudeatzen. Zer nolako erantzuna jaso du erabiltzaileen aldetik?

Zaila egiten zaigu gazteekin asmatzea. Gure proiektua egonkortu gabe dago eta zaila da egonkortasun hori bilatzea aste-burutik asteburura asko galtzen delako. Erabiltzaileen profila aldakorra da eta horrek zaildu egiten du egitarauaren osaketa, begiraleekin harremana... Asteburua iritsitakoan, gazteek ere ezer egin gabe egon nahi dute.

Aisialdi hezitzailea eskaintzen saiatzen zarete.

Ez zaigu gustatzen beti aisialdi zuzendu bat ematea. Baina begiraleek ekintza bat edo beste proposatutakoan, askotan ezez-

GAZTEGUNEAK ZABALIK
Larunbat eta igandeetan, 16:30etik 20:30era.
Aste Santuan, 14tik 17ra zabalik egongo da
Gaztegunea ordutegi berean.

[Beasain]
egunez egun

koarekin aurkitzen gara. Puntu hori bilatzea kostatzen ari zaigu. Batzuk oso pozik etortzen dira, besteak ezkor, beste batzuk orain ari dira ezagutzen... Guk konpromisoa eskatzen diegu. Parte hartzea guk antolatutako ekintzetan edo euren kabuz erabakitako inizatibetan.

Aisialdia ondo aprobeztatzen jakitea ere ez da erraza eta!

Ez. Iradokizun buzo! bat jarri genuen zer nahi zuten jakiteko eta konturatu ginen eskaera ia guztiak materialak zirela. Wii horietako bat, ez dakit zer nolako pantaia... Baina ez, adibidez, pintura edo ideia txapelketa bat edo...

12 eta 18 urte bitartekoei zuzendua dago zerbitzua. Adin tarte zabala da eta hori ere antzemango da, ala?

Bai, noski. Baina 12 eta 15-16 urte bitartekoak etortzen dira. 18ko ia inor ez da etortzen.

Zein da esku artean duzuen erronka nagusia?

Gure helburu nagusia da euskarazko aisialdi programa bat eskaintzea eta aisialdi hezitzailea izatea. Udalak Gaztegunea eta Ludoteka martxan asmo horrekin jarri zituen. Alegia, eskolatik edo familia girotik kanpo, euskararen erabilera sendotzeko. Behar hori badago.



Herria eta Udala eskutik



El Ayuntamiento de Beasain y las asociaciones culturales han firmado una vez más, un acuerdo de colaboración por el que el Consistorio se compromete a dar ayuda económica y logística para llevar a cabo las actividades que proponen.

“Herritik eta herriarentzat sortutako ekintzak dira eta atzean lan handia dago”

Arantxa Aseginolaza

Kultura eta Hezkuntza zinegotzia.

“Después de ver todo el trabajo que se realiza desde diferentes asociaciones, al Ayuntamiento no le queda más que quitarse la txapela y ayudar en la medida de sus posibilidades”.

“Herriak eta Udalak eskutik joan behar dute kultura politikan. Elkarren beharra dugu. Urtean zehar antolatzen diren ekintza horien guztien atzean, sekulako lana dago. Askotan, taldeetako kideek musutruk orduak eta orduak pasatzen dituzte herrian eta herritarrentzat eskaintza bat prestatu ahal izateko. Horren aurrean, Udalarari txapela kendu eta ahal duen heinean, laguntza eskaintzea besterik ez zaio geratzen. Izan ere, Beasainen badago mugimendua. Herri aktiboa dela esango nuke. Eta gainera, denetarik elkartek daude. Dantza, pintura, argazkilaritza... aukera zabala dago. Guk, urtero bezala, aurten ere kultur hitzarmenak sinatu ditugu herriko 14 elkarterekin. Urte hasieran dituzten proposamenak eta ekintza bakoitzaren aurrekontua aurkeztzen digute eta gu diru-laguntzak emateko eta beharrezkoa zaien azpiegitura errazteko hitza ematen dugu.

Bi gauza dira garrantzitsuak nire ustez. Batetik, esparru ezberdinak jorratzen direla eta, bestetik euren nahi dituzten proposamenak sustatzen direla. Herritik eta herriarentzat sortutako ekintzak dira eta atzean gauza asko ezkututzen dira: lana, borondatea, ilusioa... Goraipatzekoa da elkarten funtzioa.

Gainera, horrela, guk urte hasieratik jakiten dugu zer ekintza antolatuko diren herrian eta eskaintza hori osatzen edo orekatzen saiatzen gara.

Udalaren eta elkarten arteko harreman onaren emaitza da hori guztia. Hitzarmenak alde bien arteko harremanak estutzeko eta sendotzeko balio dute eta horrela izaten jarraituko dutelakoan nago”.

Elkarteen ahotan

Gala Nieto, Gala Ballet Eskola.

“El Ayuntamiento ha estado siempre ahí, dispuesto a ayudar”

“Nik oso begi onez ikusten ditut kultura hitzarmenak. Nire kasuan, Udala beti hor egon da, laguntzeko prest. Hitzarmenik ez bagenu egingo, ezingo genituzke antolatu hainbat ekintza. Diru-laguntzez gain, guri Usurbe Antzokia uzten digu ikasturte amaierako jaialdia egiteko. Azpiegitura eta dirua, biak dira garrantzitsuak. Horrela, zenbait gauza ikasleei doan ateratzen zaizkie. Elkarlan horrek asko laguntzen du. Ni, adibidez, oso ikasle gutxirekin hasi nintzen eta nire kabuz bakarrik ezingo nukeen eskola ireki. Toki bat bilatzen lagundu zidan Udalak eta orain Urbietan oso ondo gaude”.



Eneko Zaballos, Txilibutxof atsedendaldiko taldea.

“El Ayuntamiento y las asociaciones nos necesitamos mutuamente”

“Hitzarmena lagungarria da. Ekintzetarako dugun ia diru-sarrera bakarra da guretzat. Dena ezin zaie haurrei kobratu. Laguntza baino gehiago da finantziarioa. Ekintzak antolatzen ditugu herriarentzat eta trukean diru bat ematen dizu Udalak. Gu konprometitzen gara, besteak beste, jai batzordean sartzera eta horren baitan, marrazki tailerra edo dantzaokoa antolatzen ditugu eta jaietako zapiak banatu. Nahi baino gutxiago izaten da jaso beharrezkoa baina hori betiko kontua da. Laguntzen du. Guk lana egiten dugu eta Udalak dirua jartzen du. Bestela, adibidez, guk kabalgata antolatzen dugu. Nork antolatuko luke? Elkarren beharra dugu”.



Xabier Sarasola, Loinatz Abesbatza.

“Udalak ez digu inoiz eragozpenik jarri izan nahi genuen hura egiteko”

“Llevamos ya muchos años firmando este acuerdo y estamos contentos. No nos han puesto nunca pega alguna para hacer aquello que queríamos. No hemos recibido más que apoyo. Claro que, también nosotros analizamos qué es lo que tenemos que pedir y qué no tenemos que pedir. Vemos con qué recursos contamos, hasta dónde podemos llegar y dependiendo de eso, presentamos nuestro planteamiento. La relación con el Ayuntamiento es directa y buena. Nosotros nos comprometemos a organizar tres actos y nos limitamos a ello. Han ido cogiendo mayor peso y subiendo de presupuesto pero nunca hemos recibido un no. Quizás sea porque hacemos las cosas bien. Hemos solido comentar con otras asociaciones que al final al Ayuntamiento le sale barato. Ya sabemos lo que cuesta traer algo de fuera. Pero por otro lado, dices, estamos aquí, en el pueblo, y tenemos que ofrecérselo al pueblo. Yo no pido ni más ni menos”.

Ondoko taldeekin sinatu da hitzarmena:

Aizkorri Mendizale Elkartea, Argizpi, Arrano Kultur Elkartea, Aurtzaka, Bear Pintura Elkartea, Beasaingo Odolki Kofradia, Beti Bizi, Buztina Zeramika Elkartea, Gala Ballet Eskola, Goieniz Zine Kluba, Loinatz Abesbatza, Ostadar Dantza Taldea, Porteria Auzo Elkartea eta Txilibutxof Atsedendaldiko Taldea.



“Helburua bete dut, nire burua probatu nahi nuen, zenbat eman nezakeen ikusi”

Duela hiru urte kirolari serioago heltzea erabaki zuen. Emaitei erreparatuta, ezin esan okerreko erabakia izan zenik.

Jon Erguin, kirolaria.



Zorionak. Neguko denboraldi oso polita egin duzu?

Ondo joan da. Munduko txapelketan 19. postua lortu nuen eta zerbait gehixeago espero nuen. Lehenengo 15etan sartzea-edo. Ez zitzaizkidan gauzak nahi bezala atera, baina oso esperientzia ona izan da. Azkenean nire helburua zen neguko triatlloan podiuma egitea, Europako eta Munduko txapelketetako atak zabaltzeko eta Espainiako selekzioarekin joateko aukera izateko.

Iaz ere hartu zenuen parte Munduko Txapelketan. Aurten, otsailean, Austriako Gais-hornam Seen ospatu da. Hura beste mundu bat dela diozu.

Oso maila altua dago. Iparraldeko herrialdeetan asko eskiatzen da; hemen baino ohitura handiagoa dago neguko kirolak praktikatzeko. Hemen beti indartsuen eskian ibili izan naiz eta han alderantzizkoa gertatzen zait. Eskiatzeko orduan kentzen didate denbora. Pentsa, Noruegan eskia kirol nazionala da, hemen futbola bezala. Eta material aldetik ere oso ondo prestatzen dira.

Hurrengo urtean, berriro suertatzen bazaizu, beste eski batzuk eramango dituzula alegia, ezta?

Nik dendan erositako eskiak erabiltzen ditut. Han espreski norberarentzat tailerretan eginda-koak eramaten dituzte eta aldea harrigarria da. Apur bat moskeatuta etorri naiz.

Non pasatzen duzu okerren: korrika, uretan ala txirrindu gainean?

Korrika da gutxien gustatzen zaidana, gehien sufriarazten didana, baina gustatzen zait. Txirrinduan eta eskiatzen gozatu egiten dut.

Azken lau urteetan zuk irabazi duzu Iraupen-eskiko Euskadiko Txapelketa baina aurten ez duzu parte hartu.

Pena eman dit baina Espainiako Triatlói Txapelketarekin batera izan da eta ezin izan nuen.

Orain atseden hartzeko ordua da zuretzat, ez?

Bai, Gipuzkoako Txapelketarekin bukatu nuen denboraldia. Orain atseden hartuko dut eta gero duatloiren bat edo egingo dut baina beste modu batera.

Noiz hasi zinen triatlloiak egiten eta zergatik?

Kirola orokorrean gustuko dut. Hortan gurasoek eragin handia izan dute. Beti egin da etxean kirola. Txikitan, hiruzpalau urterekin hasiko nintzen eskiatzen, eta Aralarren ibiltzen nintzen. Somporten hasi nintzen eskiko lasterketan eta hemen, Beasainen ere, areto futboleko duela bi urtera arte ibili naiz. Urte askotan denetarik egin dut baina serioegi hartu gabe eta ikusita hala ere, nahiko emaitza txukunak lortzen nituela, prestatzea erabaki nuen eta probatzea. Hori duela hiru urte. Parrandak eta areto futbola utzi eta zentratzea erabaki nuen eta emaitzak ikusi dira. 25 urterekin hastea norgehiagoka ez dakit normala den baina...

Jauzi handia da. Ondo entrenatu, babesleak topatu...

Lehenengo egin nuena izan zen prestatzaile fisiko batekin lanean hasi zeren ez nekien nola entrenatu. Duatloietan, txirrindu lasterketetan... hasi nintzen eta emaitza onak ikusten ere bai. Mendiko duatloietan gehienetan podiuma egiten nuen eta babesle bat topatu nuen. Emaitzak hobetzen hasi ziren heinean, babes gehiago lortu nuen eta batez ere, material hobea.

Ez al da gogorregia edo sakrifikatuegia?

Gainontzeko txapelketa-kirol guztiak adina. Nik hiru urte daramatzat eta oraindik ilusio handia-rekin nago.

Bizi al daiteke triatlloitik?

Udakoetatik bai, negukoetatik ez. Hemen ez. Badaude Munduko Txapelketan dabilzan batzuk baina... denetan oso ondo ibiliz gero, bai. Niri ez zait burutik pasa.

Nola antolatzen duzu eguna entrenatzeko?

Astegunean, ordubate edo ordu eta erdi egiten dut korrika eta gimnasia konbinatuta. Asteburak txirrinduan ibiltzeko edo eskiatzeko aprobeztatzen ditut.

Zer geratzen zaizu, Olinpiadaren bat, agian?

Ez nago Olinpiaden zain. Ibili dira neguko triatlloia neguko Olinpiadetan sartzekotan baina azkenean ez da lortu. Nik uste dut nire helburua bete dudala. Nire burua probatu nahi nuen, zenbat eman nezakeen eta kanpora joateko aukerarik ba ote nuen ikusi nahi nuen. Egia esan, ez dut entrenatzeko denbora gehiago ere hartu nahi.

Ha sido subcampeón de España de Triatlón de Invierno 2008, pudiendo competir en el Campeonato Europeo (entrando en meta en el puesto 17) y en el Campeonato del Mundo celebrado en Austria donde obtuvo el puesto 19 con un crono de 1h27:08.

Es, además, campeón de Gipuzkoa de ciclocross y ha sido campeón de esquí de fondo de Euskadi en 2004, 2005, 2006 y 2007.



Sociedad Ciclista Loinaz

Pedaleando desde 1963



Carrera de cadetes del pasado 7 de marzo.



Víctor Martínez e Iñaki Albisu.

La Sociedad Ciclista Loinaz está al pilpil tras la remon-tada de hace un par de años. Hoy son 85 socios y su so-ciedad ha pasado a ser gastronómica además de deportiva. Ha heredado un importante bagaje y saber hacer. No en vano ha sido Be-asain escenario de carreras míticas como el Mundial del 1966, o el Campeonato de España de ese año mismo año como del 1964. “In-cluso –dice Víctor Martínez, el responsable deportivo– teníamos equipo de aficionados. Alberto Contador, por ejemplo, ha corrido en el equipo ciclista Loinaz. El campeón del mundo José Ivan Gutierrez también”.

Hoy siguen trabajando duro. No sólo los 14 corredores que forman el equipo de cadetes AMPO-BEASAIN, sino cada uno de los miembros de la sociedad. Y es que, como cuentan Víctor Martínez e Iñaki Albisu, organizan anualmente cinco carreras. La más importante, la Clásica de Beasain. Su 82ª edición se celebrará el próximo 12 de abril. Hasta el momento, 24 equipos han confirmado su participación. “Vienen Na-turgas, Caja Rural, AMPO desde Murcia... todos los que han ganado esta prueba han subido a profesionales”. Conforman el palmarés de la prueba corredores de la talla de Abraham Olano, Aitor Pérez Arrieta, Carlos Sastre, Patxi Villa o Unai Osa. “Habrá muy buen nivel”, dicen sus responsables. Uno de los retos de la sociedad, de cara al futuro, es “traer a Beasain una etapa de la Vuelta del País Vasco. A nivel local, potenciar el ciclismo entre los chavales. E incluso organizar una gim-kana para ponerles una golosina y que se olviden del fútbol”.

2009ko EGUTEGIA

2009-03-07 XXVII Usurbeko Proba
2009-03-14 Eskolako Proba
2009-04-12 LXXXII Loinaz Proba Klasika
2009-05-29 Loinaz Txirrindulari Elkartea Proba
2009-09-12 XXVII Beasain Proba



Ampo Beasain kadete taldeko hiru txirrindulari beasaindarrak.

Alain López. Ampo Beasaingo txirrindularia.

“Nik aurtengoa bigarren urtea dut eta naba-ritzen da ezberdintasuna”

“Kostata baina lortu dugu taldea ateratzea eta pozik gaude. Bestela, beste talderen batera joatea pentsatuta genuen. Andoingora edo. Nik aurten bi-garren urtea dut eta antzematen dut aldea, iazkoa gogorra egin zitzaidan. Haur kategoriatik kadeteetara aldea handia dago, batik bat, kilometrotan. Za-harrenegia egurra ematen ziguten pelotoian. Guk aurten gazteenei ez diegu hainbestekoa ematen eta aurrean dabilta. Hala ere, denboraldia hasi berria dugu eta baditugu lasterketa gogorrak. Ni berandu hasi nintzen prestatzen, zaintiratu bat izan nuelako baina baramatzat eginak 4000 km-tik gora eta ikusi egin beharko”.

Iñaki Aldanondo. Ampo Beasaingo txirrindularia.

“Denbora asko eskatzen duen kirola da”

Para Iñaki, éste es el primer año que corre en el equipo de cadetes. Corrió la pri-mera carrera el pasado 7 de marzo y le salió bien. “Para ser una primera carrera el recorrido era muy largo, tal vez, demasiado. Imáginate, hay un paso gigantesco de estar haciendo 10 kilómetros en infantiles a pasar a hacer 70 kilómetros. Eso sí, es mucho más bonito andar en carretera, en los circuitos al final de aburres. De todos modos, yo suelo estar fuerte hacia mayo. En invierno esquío y acabo de coger la bicicleta. Respecto a la temporada, aún es pronto para decir algo. Tene-mos muy buen ambiente, que la gente se anime, a ver si reforzamos el equipo”.

Julen Oria. Ampo Beasaingo txirrindularia.

“Anaia afizionatuetan dabil eta hark sartu dit zaletasuna”

Julen Oriarentzat bigarren urtea da AMPO-Beasain taldean eta antzematen du. “Jendea indartsuago dago” dio. Berari anaiak sartu dio txirrindularitzare-kiko zaletasuna. Hala ere, onartzen du kirol gogorra dela, “denbora handia es-katzen du gainera”. Aurtengo erronketako bat Beasaingo lasterketa irabaztea zen baina ez zuen zorte hori izan. “Erorketa bat gertatu zen eta gero ezin izan nuen pelotoia harrapatu”. Bere ustez, “etorkizuna zaila da txirrindularitzaren-tzat. Dopin kontu honek jendeari pentsarazten dio oso kirol gogorra dela eta baztertu egiten du. Atletismoko probetan, adibidez, analisiak egingo balituzte, gehiago aterako lirarteke”.